

Arau orokor gisa, hauek dira siglak idazteko jarraibideak:



Letra larriz idazten dira oso-osorik (akronimoak* izan ezik).

Siglen adierazpen garatuak maiuskulaz edo minuskulaz idazten dira, adierazpidearen arabera; hau da, kontuan hartuta izen propioak edo arruntak diren:

- **EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa)**
- **IFK (identifikazio fiskaleko kode)**

*Akronimoak silabaka, edozein hitz bezala, irakurtzen diren siglak dira.



Letren artean ez da tarterik eta punturik idazten.

- ***I.V.A.P.eko zuzendariaren ebazpenak**
- **IVAPeko zuzendariaren ebazpenak**



Deklinatzean, kontuan izan behar da ordezkatzan duten izenaren izaera.

Izen bereziak laburtzen dituztenak leku-izen bereziak bezala deklinatzen dira (**EITBren egoitza**). Erreferentea plurala denean, kontuan izan sigla deklinatzen dela, eta ez adierazpena. Hortaz: **AEBra** (***AEBetara**).

Bestalde, izen arruntak ordezkatzan dituztenen kasuan, artikulua hartzen dute: **BEZaren, CDetan...**



Deklinabide atzizkia marratxorik gabe lotzen zaio siglari:

NBEren aurrekontua.

Arau honek hiru salbuespen ditu:

- Testu osoa letra larriz dagoenean: **SESB-REN HISTORIA.**
- Siglaren azken letra eta atzizkiaren lehena bera bada: **AEK-ko irakasleak.**
- Letra larri eta xehez osatutako sigletan azken letra xehea izanez gero: **BPGd-aren** (barne-produktu gordina).



Letra arruntez idazten dira, baita ordezkatzan duten izena etzanez idaztekoa denean ere; esaterako, argitalpenak (**EGLU, RIEV...**) edo beste hizkuntzetako adierazpenen siglak (**CIA, DVD...**).



Ez dira inoiz zatitu behar lerro baten amaieran.

* **IV-/AP.** Salbuespen gisa, lexikoan hitz arrunt gisa txertatuta dauden akronimoak zatitu daitezke: **ra-/dar.**